

Argimiro

MIKEL ARAMENDI



MILIOIKA hiritarren datuekin tratatu urteak zera-matzaten tunanteomniziente batzuk (sektore horretako beste asko baino alprojagoak

ez, seguruarekin) atxilotu ditu poliziak, LORTAD legea BOEaren atarian dagoenean; ohizko nobelagile afizionatuak, halere, Argimiro izeneko baten susmoak ipini ditu inbestigazioaren sorburuan. Inork ez duzan argudia Argimiroen eska-siagatik ez direla ikertzen antzeko desmasia publiko naiz pribatuak, hara neuk susmatu ezezik nozitu ditudan 'argimirokeria' batzuk:

Donostian Leitzarango autobidearen aldeko manifestazioa antolatuta zuten partidu txit legezaleek nondik atera zituzten datuak ekitaldi hartarako gonbiteak postaz jendeari bidaltzeko? Nik badakit zein erakunde txit ahaldua eta ofizialean, eta ez beste inon, egon behar luketen gure etxera heldu zen gutunak zekartzan datuak, eta zein betekizun urguritarako jasotakoak ziren.

Aitortuko ote lidake Gipuzkoako finantz entitate handienak, postazko zenbait publizitate (hain entitate 'serioarekin' zerikusirik ez dutenak, gainera) bidaltzeko erabilitako izen-helbideak haren kontu korrontedunen datu-biltegitik atera direla? Nik badakit ordea jaso dudana zenbait propaganda-gutunek zekartzan datuak hantxe, eta ez beste inon, egon behar luketela.

Nondik ateratzen zituen Ertzaintzak oraintsu arte gutako askoren etxera 'SOS-Deiak' propaganda liburuxkak izen-helbide zuzen eta zehatzez bidaltzeko behar ziren datuak? Estatu-monopolio handi baten ordenagailuetan dagoen bezero zerrendakoak ez direla frogatzen didanari, ertzain nahiz paisano, afaria pagatuko diot bere gustoko sagardotegian.


HEMEROTEKA

EL CORREO ESPAÑOL

Ausentzia parlamentariak

Ez zait gaizki iruditzen HBkoek ez ordaintzea, bozeramale radikalek hori txantxatzea dela dioten arren, dirudienez beren boto-emaleek ez bait dituzte aukeratzen lanerako, oztopatzeak baizik. Neurri hori bidezkoa dela iruditzen zait. Hala ere, ez zait zuzena iruditzen hori Madrileko Legebiltzarreko beste hautetsiengana ez zabaltzea, zeinak ez diren inoiz joaten Kongresu edo Senatuko beren lanpostuetara; batez ere Senatukora.

Uste dut Eusko Legebiltzarra, eta baita Madrilekoak ere horrela erabakiko balu, ondo egiten dutela beren eginkizuna gauzaten ez dutenei soldata eta dirulaguntzak kentzean. Parlamentari karguak botoa baino zerbait gehiago eskatzen du, instituzio eginkizunetan parte hartzea ere eskatzen du, beste gauza batzuen artean. Inork ezingo die hautetsi izatera kendu Legebiltzarreko ez joateagatik, baina gauzatzen ez duten eginkizun batega-



OROZ / DIARIO DE NAVARRA

tik utz ditzakete ordaindu gabe eta horrela egin behar dute, gainera. Baina, parlamentari radikalek gain, joaten ez diren beste horiek ere ikertu egin behar dira.

LUCIANO RINCON

EL MUNDO

EAJ pragmatikoa

«Arriagako izpiritua» berretsi egin du joan den asteburuan EAJk eta, beraz, berretsi egin du bere jokabide pragmatikoa: «urtean hiru egunez gora Euskadi Askatuta oihukatu eta nazio bat garela esan (bihotzeko nazionalismoa asetzeko) eta beste hirurehunda hiruogeita gehiago egunetan autonomista soila bezala jokatu. Eta

pragmatismoz ari garenez. Arzalluz pragmatikoak jakin behar luke (agian badaki). «Europar dena ez dela posible», sekulan izan ez den bezala. Dena posible dela esan dion amerikanoa ez baita europarra, hain zuzen ere.

IÑAKI ZABALETA

DEIA

Demokrazia partehartzailea

HB estreinatuta egiten denean, nolabait heterogeneoa den alderdi, buruzagi, talde eta norbanakoentzako multzoa izango balitz bezala egiten du. Abangoardia eta leninismoarekin desilusionaturik zeuden

batzuk Heterogeneotasun horretan eta asanblearismoaren zuzeneko demokrazian aurkitu zutela uste izan zuten ohizkoa ez den freskotasun eta aberastasun demokratikoa. Orduetik hona, HB, txandako titularen abangoardia eta estrategia ezberdinek zuzendu eta babestuta, «koherentzia» handiagoa lortuz joan da, eta koherentzia horrek, herritarren ekimenen independentziarekin amaitu du, bata bestearen atzetik; herritar horiek, bestalde, funtsean beren interes aldea egiten dute lan. «Axolagabek» izatetik, «diziplinatuenak» izatera pasa dira, HB —barruan zebilen jende mota kontutan hartuta— «erreformismoan» jausiko ote zen heldurra zuten jendearen gogorako.

JOSE FELIX AZURMENDI

ZUZENDARIARI

EGUNKARIA, Geurea!

Jadanik EUSKALDUNON EGUNKARIAK urtebete egin du eta beste ehun beteko dituelakoan nago. Garaipen handia izan da, oztopo ugari gaintu bait ditu: euskalki aniztasuna, euskal irakurle kopuru murrizta, muga geografikoak, gizarte erdalduna eta 'Eusko' Jaurlaritza.

EGUNKARIAN parte hartzeko gonbite zintzoa jaso zuen Jaurlaritzak. Honek, aldiz, erantzun antieuskaldun eta zikinaren bidea hartu zuen: euskal argitalpen bezala EGUNKARIARI zegokion laguntza ukatuz eta egunkari instituzional berri bat iragarritz, guztia EGUNKARIA hondoratzeko asmotan.

EGUNKARIAREN urteurrena ospatu den honetan, beraz, Jaurlaritza, Haiek (politikoa, Goian daudenak) izan dira galtzaile nagusiak: ezin izan dute euskal herriak herriari bertan sustraitutako euskaldunon egunkari zabal bat sortzeko hartu duen inozitate hautsi, ezta euskaldunongan EGUNKARIAK du-en harrera gero eta handiagoa eten ere.

Baina, zergatik Jaurlaritzak jarrera hau? EGUNKARIA ez-ofiziala denez, Jaurlaritzak ezingo du EGUNKARIA gure gizartea inbaditzen

duen kultura ofizialaren bozeramaile bihurtu eta ez informazio monopolizatu eta kutsaturik argitaratu.

Ez dute lortu hiru alderdi politikoren interes hutsekin bozeramaile litzatekeen egunkari 'fantasma' plaza-tzatzea. Lastima! Oraingoz ez da euskaraz idatzitako Jaurlaritzaren panfletorik izango.

Dirulaguntzei dagokionez Nafar Gobernuari EGUNKARIAREN laguntzak handitzea eskatu beharko zaio, agian Iruñekoak euskaldunagoak dira... baina hauek ere ez ematekotan EGUNKARIA aurrera aterako da Gure (Goian ez daudenak, ez gaudenok) laguntzaz besterik ez baldin bada ere. Aupa EGUNKARIA!

IÑAKI LOPEZ DE LUZURIAGA
Donostia

Cristina Cuestaren «meritua»

Haserrea eta harridura sortu digu Marruma Elkarreko bazkideei, Odon Elorza Alkatearen erabakia, Cristina Cuestari eman dioten Hiritar Merituaren Saria. Alkatearen esanetan, «ezta baida sortzen ez duen per-

sona, eta merezimenduzko lan zaila egiten duen» pertsona bait da.

Gu, Groseko beste bizilagun askok bezala, Bakearen Aldeko Elkartearen sortzaileak egin duen ustezko lan hori, ez dugu ezagutzen. 1989ko maiatzean, gure elkartearen pertsiana, Ignacio Garcia Arrizabalagarekin batera, «Sexo y Paz: La Alternativa» zioen pinta-keta arrosa fosforargitua ez bada behintzat.

Gaur egun ere 'mirestu' daitekeen testua eta ekintza bera ere, ezagutzen dutenek, berari buruz pentsatzen dutena baieztatzen dute, merito gabekoa, pertsona hutsala eta bere izendaketa, besteen desohoregarriko basterik ez dela, hain zuzen ere.

MARRUMA ELKARTEA
Donostia

Adolfiori

Adolfo Kareagak lortu dau/ Unidad Vizcaina sortuz/ aintzinako lagunak biltzea/ zirikatze momentuz/ bere 'sitio' aurkitu eta/ euskeraren kontra batuz/ aber- tzaileen aurka egongo da/ 'Señorio' ei birpiztuz/ zoaz Kareaga Madrileria! zure lagunak alkartzuz.

ANTON BILBAO
Bilbo

GAIA JARRITA



Julian Garcia Valverde

Ministeritza postu hortatik dimisioa aurkeztu txantxuioetan dabilen orok basterik merezi ez du ikerketako batzorde hori baldin bada horren prestu terrenoena argitu arte hartuko al dute estu!

ARANTZAZU LOIDI

Modernoak

JEXUXMARI ZALAKAIN



ARRIAGA musikaria izan zen. Arzalluz ez, hori politikaria da. Horregatik, alderdien politikak kulturari aurrea hartu dion honetan, Arriagaren, izpiritua baino Arriagako izpiritua nagusitu da.

EAJ-PNVk bere kontuak atera ditu. Modernoa izan behar da. Europearrak. Xirula alde batera utzi eta flauta jotzen hasi. *Jeboegia* hura; unibertsalagoa beste hau. Homologaria oso. Beraz, utikan EAJ. Uxa PNV. Aski da Europako PV izatea.

Moderno izateaz gainera, agindu egin behar da, jakina. Hegemonikoa izan. Betiko eta betirako alderdia. Eta hori izateko ezin, bada, nazionalista izan. Bihotzekoa bederen, ez. Estuegia. Izatekotan, arrazoizko nazionalista. Agintean segitzeko, ordea, bi baldintza daude: paktuak edozeinek egin eta kide izateko nazionalistak eta ez direnak, batera, onartu. Integrazioa, alegia. Bapo!

Ez dakit modak dakarren kutsaturagatik edo, arazoa da izpiritu hau hedatzen hasia dela. Garaian zantzia, omen. Adibide bat ematearren, Jarrai, bere ibilbidearen autokritika egiterakoan, kexu da: gazte independentistak baino ez omen ditu biltzen. Eta gainontzekoak ditu amets. «Elkartuak bai; nahasiak ez» esan ohi zen lehen. «Tu quoque fili mii? zioen Cesarrek Brutusi. Ez gaituk/n, maite, modernoak izateko jaio!

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:
JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:
JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:
INMA GOMILA

Zuzendaria:
PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:
NEREA AZURMENDI
LUZIEN ETXEZAHARRETA
IÑAKI URIA

Publizitatea:
KORNELIO ROTETA



Batzorde-Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1./ 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxe: 36 54 93

Arabak: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxe: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxe: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxe: 423 94 60

Lapurdia / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxe: 59 25 75 11